

# ARGUDIOAREN ERRETORIKA IDAZKUNTZAN: GAUZEN NOLAKOAZ

Koldo J. Garai Bilbao  
Euskal Herriko Unibertsitatea

## 1. ASMOTIK EGITEKORA

Lan honen helburua nire ikasleekin idazmena lantzeko erabili ohi dudan metodoa aurkeztea da. Lana asmoz zabalagoa zen hemen datorrena baino, argitalpenaren hesi-langek artaziak ateratzea eragin didatela<sup>1</sup>. Hala ere, asmoa noizbait beste inon begietaratuko dudalakoan, noan zertan zetzan bederen aipatzera. Hara zer.

Hasteko, idazmena landu aldera, Erretorika zaharrak zerabiltzan alderdietako batzuk eskuratu beharra agertu gurako nuke, jakiteko, erretorika klasikoak INVENTIO esaten ziona, hots, harako edo delako gaiari buruzko argudioak sortzea, asmatzea edo idorotzea (Garai 2002). Antzinako Erretorikak bere zuen estrategia hori idazketatik aldendu bazen, besteak beste arazo teknologikoengatik izan zen. Izan ere, hemeretzigarren menderaino, idazteko materialen karua eta erabiltzen gaitza zirela zio, ezer papereratu baino lehen, dena ondo-ondo pentsatuta egon behar zen: ez zegoen argudio posibleak zirriborratzen ibiltzerik (Wright & Halloran 2001). Horren orde, argudioak idorotzeko eta asmatzeko oso prozedura zehatzak zituzten antzinatekoek —Ciceroren *Topicak* agerian uzten duen bezala (Hubble 1993) edo, nahiago bada, garai eta iturri bertsuko *Rhetorica Ad Herenniumek* (Caplan 1989)—, eta baderitzot prozedurok idazkuntzarekin batera ekarri behar direla, hau da, idazte uneari josi.

Baina, hala jaurtikitzearekin, badakit irakurleak behingo batean bizkarra emango zidana, eta horregatik hain zuzen hasierako sator lana egin beharko nukeen. Irakurleari azaldu beharko niokeen zelan, damu-gaitzez, berdindu ohi den erretorika apaingarriarekin edo estiloarekin, egiari eta errealitateari buruz buru balego bezala eta, halaber, aipatu beharko niokeen *estilo vs. mamia* dikotomia falazia bat baino ez dela (Thomas & Turner 1994: 9-10)<sup>2</sup>, azken buruan,

---

<sup>1</sup> Terminologia kongresurako prestatu nuen lanak honako izena zuen: “Goitik Beherako Testu Antolakuntza Antzinateko *Topicaren* Argitan”, baina ezin dut horretaz jardun honen labur, gaia eta entzuleria kontuan hartuta. Eskerrak eman gurako nizkieke bai nirekin hain pazientzia handia erakutsi duten *Euskara Institutukoei* gonbitea luzatzeagatik, eta bereziki Iñaki Ugartebururi beti izan dudalako gertu edozertarako, eta bai Ana I. Moralesi ere, artikulu honetako ingelesezko zatikiak itzuli dizkidalako irakurlearen onera eta onurako.

<sup>2</sup> “Estiloa mamiaren kontrakotzat hartzen denean, ematen du bidenabarreko eta aukerako gauza dela, baita miresten denean ere. Planteamendu horren arabera, mamia diren pentsamendu eta esangura horiek estiloaren aurrekoak dira, eta guztiz bereiz daitezke estilotik. Hari beretik, esaten da pentsamendu edo esangura bat eta bera estilo askotan adieraz daitekeela, edo are gehiago: baita inongo estilo barik ere, adibidez ‘apaindu gabeko egia’

hizkuntzaz dugun ikuskera herrikoitik (Kay 1983) edo metaforikotik (Reddy 1976) datorrena; berba batean, ez dagoela idazterik bat ere estilorik gabe, ez dela egia, demagun, zientziak “estilo” edo “apaingarri” bere burua azaltzen duelakoa (Fahnestock 1999).

Ildo beretik, erretorika gai agor, idor eta izen zaharkituekin lotzeko joerari aurre egitekotan, gaineratu beharko nukeen zelan erretorika ez den berdindu behar Mediterraneoko eta Ipar-mendebaldeko Europan garai klasikoetan sortutako corpus idatzi baten bilakaeraren historiarekin. Artez esateko, *Erretorika esangura eraginkorra sorrarazteko gizakiok geurez dugun ahalmena da* (Oakley 1999) eta, hortaz, hizkuntza eta garai guztietakoa, Kardaberaz batek esango ligukeen legez (GEV, 1974: 164)<sup>3</sup>. Erretorikak azter dezake, esaterako, zelan datozen bat edo bereiz ikusleria batentzako eraikitzen diren Web orrien tankerak eta ikusleria horrek begiak eroateko dauzkan joera kulturalak<sup>4</sup>. Era berean, erretorikak azter dezake, adibidez, Oskorri taldearen *Vizcaya-tik Bizkaia-ra* diskoko “Joan nintzan Madrilerara” kantari herrien izenen zerrendak kontaeran betetzen duen funtzioa, eta galdetu ea ez ote datekeen Zeelanda Berriko Papuen kontaeretan ageri den berbera, hau da, geografiaren bidez kontaeraren hurrenkera ehuntzea (Hutchins 2000)<sup>5</sup>. Hain zuzen horixe funtzio bera zen

---

edo ‘gauzen osotasun hutsa’ estiloaren horniduraren alternatibatzat aurkezten direnean. Horrela ulertuta, estiloa apaingarri bat da, funtsezkoa denetik distraitzen gaituena; berniz horrexek egiten du egia ikusgaitzago, gutxiarik. ([9] or.) “Estiloa gauza espiritualtzat, iruzurtzat nahiz bitarteko gauzat jo, estiloa aukerakotzat hartzen duen edozein ikuskera desegokia da, eta ez bakarrik idazketari dagokionez, baita edozein giza ekintzari dagokionez ere. Ezinezkoa da ezer egitea estilorik gabe, estiloa ekintzaren berezko osagaia delako, ez zerbait erantsia. Estiloa testuaren tipografiaren antzekoa da. Oharkabea joan dakiguke, eta sarritan hala egiten zaigu, baina beti dago hor. (...) Askotan uste izaten dugu berba hutsei begira gaudela, eta ez gara konturatzen tipografia jakin batean inprimatuta daudela” (10. or.). Ana I Moralesek Ingelesetik itzuliak.

<sup>3</sup> “Euskaldun askoren jakineztasun edo errore itsua txit handia da, eta uste dute, erretorika eta honen erregelak eta harmonia ederra, latinarentzat baizik, edo euskararentzat ez direla. Jakizu bada: I) Erregela horiek euskarari, beste lengoai guzietan bezala direla, eta gure hizkeran Tropo eta Figura diren guztiak hain ederki datozela, nola latinean eta beste edozein hizkuntzatan: eta arrazoiaren argia buruan duen gizonak euskarari hau ezin ukatu dio. Jakizu II) Artezko edo erregelekiko erretorika baino izatezko edo bakoitzak bere naturalezako duen erretorika lehenago dela. Hargatik Kintilianok hain argiro esan zuen: (L. 2. C. 17.) “*Omnia quae Arts consummaverit, a Natura initia duxisse*”. Arteak bere erregelekiko akabatzen duen guzia, naturalezatik edo berezko izatetik hasten dela. (L. 3. c. 2.) “*Initium dicendi dedit natura, initium Artis Observatio*”. hitz egiteko hasiera Naturalezak, Artearen hasiera oharrak edo obserbazioak eman zuela. (L. 2. C. 19.) “*Natura etiam sine doctrina multum valebit; doctrina nulla sine natura esse poterit*”. Arte edo dotrinak bere gaia naturalezatik edo berez behar duela; bestela ezer balioko ez duela, edo ezer izango ez dela. Arte gabeko edo berezko erretorika naturala nola den, hobeto erakutsiko dizute, estudio eta eskola gabeko emakume bik: bat Gipuzkoarra, bestea Bizkaitarra, zeinei kontu grazioso bi ziertoak, orain esango ditudan bezala, igaro zitzaizen”.

<sup>4</sup> Hizkuntza departamendu batek eskaini lezakeen Unibertsitateko laugarren mailako irakasgai baten deskribapena hementxe aurki daiteke: Turner, Mark. “Writing for the Web”. Udaberria: 2001. URL: <http://www.wam.umd.edu/~mturn/WWW/wfw.html>. Eskuratua 2002-I-29. Bestalde, haramen online argitalpenez arduratzen den aldizkari akademiko birtual baten helbidea: *The Journal of Electronic Publishing* URL: <http://www.press.umich.edu/jep/>

<sup>5</sup> Horrek esan nahi du kontaeran kontrako “norabidea” hartuz gero, guztiz bestelako kontaera bat atera dakigukeela. Abiapuntu hori ikaragarri interesgarria litzateke inoiz euskal curriculum eskolakoa zein ez kanonikoa ikertzeak bagara. Pentsa dezagun elizetako XIV-XV mendeko erretaulek duten betebeharrak

Erretorika klasikoan oroimena lantzeko ageri ziren loci edo leku komunek zutena: geografia fisiko nahiz asmatu horrek erausiari oholtza kognitiboa emango zion.

Era berean, erretorikak Harry Potterren arrakasta ere azal lezake, han darabiltzan ekintza aditzen hurrenkera bizi baina trebeari begiratuta, ahozko kontaera tradizionaletik hain gertukoa (Duffy 2002). Agerian jar lezake, gainera, nola arrakasta hori amandre ipuinetatiko esapide eta formula lako egituren erabilera sortzailean oinarritzen den (Duffy 2002)<sup>6</sup>, eta, bidezidor, zer dioskun horrek ume ingelesez alfabetatze tradizioaz eta iturriez.

Goian aipatu daroan dikotomia haren ustelaz gain —estiloa vs. mamia—, eta erretorikari buruzko gainerako aurreiritziez bezain bestean, hurbilketa erretorikoaren modernotasuna ere eman beharko nion begietara irakurleari. Horretarako, alde batetik, Perelman eta Olbrechts-Tytecaren lana aipatu beharko nuen (1971), eta esan zelan lan horren funtsa erretorika klasikotik argudioaren erretorika berreskuratzean zetzan (Garai 2002); bestetik nabarmendu beharko nukeen ingeleza irakasteko eskoletan idazmena erakusteko erabiltzen den *Toulminen eredu*a esaten zaionak ere argudioarekiko bide bertsua egiten duela<sup>7</sup>. Adibidez, *Test of Written English* azterketa prestatzeko eskuliburuetan indar handiena argudioak bilatzeari ematen zaio (Gear eta Gear 1996).

Azkenik, kontuan hartuta XIX. mendean Unibertsitateak ahozkotik idatzizkora egin zuenean burgesiatiko ikasleak ebaluatzeko xedeaz egin zuela (Wright eta Halloran 2001), hausnar erabiltzeko galdera honekin bukatuko nukeen: zer da gure ikasleei saiakera-galderazko azterketa batean eskatzen zaiena, ez bada INVENTIOa? eta areago, zein da INVENTIOak leukakeen lotura kognitiboa eta pedagogikoa irakasgai horretako “eduki” edo ikasi beharrekoekin (hau da datutzat eskaintzen zaizkionekin), eta zein lukeena testuen bidez eta helburuz gogoan gordetzearekin?

Nahiz eta nire jardun akademikoan garrantzia handiagoa duen eman berri dudak programak hurren datorren artikulua baino, ez baitut harainoko guztiak azaltzeko esparrurik, bego

---

inkulturizatzailea eta narratiboa, alfabetatu gabeko baina erretorikadun hartzaileari begira. Ikus fokalizazioaren arazoak hemen: Bal, Mieke. 1985. *Narratology: Introduction to the Theory of Narrative*.

<sup>6</sup> Hizkuntzaren oinarritzko izaera esamoldezkora bigarren hizkuntzen irakaskuntzatik ere aztertzen dihardute (Lewis 2001).

<sup>7</sup> Berez, Toulminen ereduak ez du Toulminen berak landutakoarekin lotura zuzenik, gerora idazkuntza irakasleek sortutakoa baita; Toulminen motibazio lehena silogismoaren edo entimemaren proposizioak oinarritu beharraz eta azaldu beharraz izan baitzen (Toulmin 1958).

asmoa eta nagokion hemengo eginari; hau da, nire idazmen eskoletako oholtza den Fahnestock eta Secorren liburua deskribatzeari.

Fahnestock eta Secorren testuak jaso eta iragazten du amerikar tradizioan egin den argudioaren erretorikaren erabilera idazkuntzari egokiturik. Liburu honetan badira argudioari buruzko zenbait auresuposamendu edo abiapuntu, gurean eusten zaienetatik aldentzen direnak: bata testu antolakuntzarako “goitik beherako” planteamenduaren aldeko hautua da, “behetik gorako” planteamenduaren ordez. Goitik beherako esan diodan abiapuntuak berarekin dakar testu antolakuntzak isla zuzena izango duela idazkuntzan, hots, testuaren antolatzeak testuari berari gainezarriko dion koherentziak eskatuko dizkigula, berez-berez, behar diren lotura elementuak. “Goitik beherako” diodanean, esan nahi dut unitate handietatik txikietarakoa egitea, artikuluen laburrak terminoa era laxoan erabiltzera jartzen nauenez. Honek luzeago joko baliguke ere, ezin aipatu gabe utzi bigarren hizkuntzen irakaskuntzatik ere aldarrikatzen dela esangura inferitzeko mekanismoetan ezin bazterreratuzko garrantzia duela ikasleak testura dakarren mundu ezagutzak (Lewis 2001: 155-157)<sup>8</sup>. Mundu ezagutza horrek badu bere azpiko eskema abstraktua (Ruiz Bikandi 2000), baina eskema horrek zulo antzekoak dauzka, eta hortxe sartuko lirateke inferitu beharreko aldagarriak (Kay 1987: 203-206)<sup>9</sup>, bai alderdi semiotiko edo hermeneutikotik bai alderdi erretoriko edo heuristikotik. Beraz, txantilo horren eraikitzea da idazkuntza lantzean lehen eginkizuna<sup>10</sup>.

---

<sup>8</sup> “Hitza dekodetzeko —esanahia emateko— goitik beherako prozesua deitu ohi zaionaz baliatu naiz: mundu erreala dakidana erabili dut, zehatzago esanda egutegiez eta tipografia ohiturez dakidana. Ezagutzen ez dudana nire jakintza osoarekin harremanetan jartzeak eman dit aukera behin-behineko esangura emateko. Egoera erreala batean konprobazioa egin ahalko nuke gero, eta, beharrezkoa izatera, nire usteak aldatuko nituzke. (...) mundu erreala dakidana lanean jarriz eta esaldia interpretatuz —hori da gako hitza— nire mundu ikuskera orokorrarekin “bat etortzeko” moduan. (...) Helduek mundu jakintzaren itzelezko errepertorioa daukate, eta horrek bidea ematen die materialak interpretatzeko (=ulertzeko) eurek ulertzen ez dituzten berbak edukita arren. Egia esan, arreta gehiena ikasleek ulertzen ez dituzten berbei ematen dien edozein prozesu buruz buru dago guk testua normalean ulertzeko betetzen dugun prozesuarekin. Horrekin nahikoa esan dugu ikasle helduei testu bat eman eta zera galdetzen duten irakasleez: *Badago ulertzen ez duzuen hitzen bat?* “Halako irakasleak esangura behetik gora eratzen dela suposatzen dabilta konturatu barik: apur bat ulertzen duzu, gero beste apur bat, gero beste bat, eta azkenean, apur guztiak batera jarrita, irudia osatzen duzu, puzzle batean bezala. Hori neurri batean egia da, esangura sortzeko moduetako bat da, zehatzago esanda. Hala eta guztiz, ez da esangura sortzeko modu bakarra. “Puzzlearekiko konparazioa lagungarria da. Puzzlea egiten hasten zarenean oso zaila da, batez ere irudi osoaren kopia bat ez badaukazu. Nahiko etsigarria da: edozein berde zati hartu ahal duzu eta beste edozein berde zatirekin elkartzen saiatu... agian ondo geratuko dira. Erkatu hori bukaera aldeko egoerarekin, pieza gutxi batzuk baino geratzen ez direnean kokatzeko. Hutsuneak egon arren, irudia argi dago. Adibide honek iradoki beharko lieke irakasle askori testuei heltzeko modu hobekak daudela ezagutzen ez diren hitzei erreparatzea baino” (155-156. or.).

<sup>9</sup> “*Eskemata* diogunean hau adierazi gura dugu: memoria semantikoko egiturak, egoera konkretuetan eszenarioak edo *antzez-guneak* eraikitzeke erabiltzen ditugunak. Eszenatokiok, berriz, *irudia* eratzen dute. Eskemek hutsuneak daukate, eta antzez-gune konkretu bakoitzean hutsune horiek gauza batzuekin betetzen dira. Gauza horiek *partaideak* dira. Sarri askotan, partaideek antzez-guneetan betetzen dituzten hutsuneak egitura gramatikaleko izen sintagmekin elkartzen dira, eta antzez-gune diferenteetako partaide bi berbera ote diren ala ez honako honek erabakitzen du askotan: izen sintagmok erreferentziakideak izateak ala ez izateak” (203.or.).

Esaldi-perpau maila inoiz gainditzekotan, pentsatu behar dugu unitate handia ez dela popertza atal txiki eta, batez ere, finko eta noranahikoez osatutako konposatu bat. Urkultzeak helburu zehatz bati ez besteri erantzungo dio, hau da, helburu baterako atal batzuk berebizikoak izan daitezke, baina erabat desegokiak beste zerbaitetarako. Halaber, pentsatu behar dugu “osagarri” txikia ez dela berez handia baino ikasi edo ulertzen errazagoa. Txikia edo “osakina” errazagoa delako intuizio frogatu gabeak badu unibertsitateko euskara curriculumetan ere ispilaketa bat: oro har hastapenetako ikasturteak perpau bakunaren mailan dabilta, eta hurrengoetan perpau konposatuetan. Holako planteamendu bat egokia izan daiteke azterketa sintaktikorako, edota gramatika abstraktu eta esplizitu batekin harremanetan jarri ahal izateko, baina hemendik ez da segitzen hori hizkuntzaren erabilerak lantzea denik, eta are gutxienik hain gramatika berebizikoa duen idatzizkoa lantzea. Ez dugu batere ziurtasun zientifikorik suposatzeke joskera eta lokailuak ondo dakizkienak testu onak sortuko dituenik. Kontrakoa, aldiz, gertatu ohi da, jakiteko, testu koherente bat sortzeko gai denak joskera eta lokailuak behar bezala erabiliko dituela.

Fahnestock eta Secorren liburuan Europako ikuskera tradizionaletik aldentzen den bigarren auresuposamendua testu-generoari buruzkoa da: European askoz indar handiagoa ematen zaio testu generoari edo, nahi bada, generoak azaltzeko gehiegizko ahala eta indarra dauka — tamalez historia kanonikoak gurean duen pisuaren bestetsu—. Zehatzago, gure ikasleei eskola erakustean hola bereiziko genituzke: argudio testua, deskribapena, kontaera-eta. Kontura gaitetzen generoaren araberrako planteamenduak aberastasunik asko izan dezakeela (Jamieson 1975), adibidez generoak ezarri uste dituen interpretazio langa eta esparruak prototipoaren eta hizkuntz gestaltaren teoriaren argitan (Baranov 1997). Alabaina, hori landu ordez, ikasgeletan *doxa-epistemea* (ustea / ezagutza) absolutuki banatu ohi ditugu, bakoitza testu-genero bati

---

“Orain arte eman ditugun *parsimonia* edo *urritasun printzipioaren* adibideek honako egitura izan dute: (a) testuko hitzek eskemak dakartzate gogora; (b) eskema horiek hutsuneak daukate, partaideek bete behar dituztenak hutsuneok mamitzen dituzten eta testu bakoitzari dagozkion antzez-guneetan; (c) urritasun printzipioak agintzen dio irakurle idealari ahalik eta partaide kopuru txikiena erabiltzeko, eta, horretarako, ahal den guztietan partaide berberak erabiltzeko antzez-gune desberdinetan; (d) horren ondorioz, antzez-gune txiki ugari katramilatu egiten dira, eta horietatik antzez-gune handi, bakar eta sare moduko bat sortzen da. Nik esango nuke antzez-gune orokorraren (hau da, *irudian*) sarekatze hori testuen koherentziaz daukagun intuizioaren osagai garrantzitsua dela” (205-206. or.). Itzultzailearen oharra: “Antzez-gune” ingelesezko “scenario”ren lekuan jarri dut. Ez da eszenatoki, antzezlanaren ingurukoak dakartzalako berarekin, baina antzertiaren mundutiko metafora honek badu bere gain hipotesi multzoaren esangura ere, gaztelaniazkoa “escenario” baino abstraktuagoa da: alegia, egoera batek zenbateraino argitzen digun hor erabili ohi den hizkera motaren esangura (rolak, etab.). “Agerraldi” ere izan zitekeen aukera ona.

<sup>10</sup> Semiotika kognitiborako ikus Danimarkako Hegoaldeko Unibertsitateko esteka hau: <http://www.hum.au.dk/semiotics/>

berez-berez lotuta balego bezala: egunkarietako lehen orriak objektiboak ei dira, eta “zuzendariari gutunak”, berriz, iritziak; zientzia objektiboa omen da eta humanitateak subjektiboak, eta abar. Eta kontura gaitzen, ostera ere, planteamendu horrek duen kolaborazionismo politikoa zenbat garrenerainokoa den —Borges “Tlon, Uqbar, Orbis Tertius” ipuinean aholkatu zitzaigun bezala—, errealismoaren edo sasi-arrazionalismoaren mitoa ezartzen laguntzen baitu (Ricoeur 1996). Aitzitik, Fahnestock eta Secorren eskuliburuan suposatzen da generoa gorabehera testu orok duela helbururen bat, eta helburu hori limurketarekin dagoela lotuta, baita testu zientifikoetan ere eta, beraz, deskribapena izanik ere, zerekin eta harekin egingo dugula argudioa, eta argudiatzeko asmotan irakatsi beharko genituzkeela deskribapenak eta gainerakoak<sup>11</sup>.

Hirugarren abiapuntu berezia eskuliburuaren irakaste inguruari dagokio. Liburu hau unibertsitateko ikasleek idazten ikas dezaten dago eratuta, eta oro har, idazkuntza darabil gogoan. Jarrera erradikalago batek eska liezaioke jarioaren ekoizpena ahozkotasanari ere egokitzea, baina horretarako, apika, ahozkotasanaren erretorika zein den ikertu beharko genuke aurretik, Ong-en daborduko lan klasikotik hasita (Ong 1985). Beraz, hemen deskribatuko dudana idatzizkoari lotuko zaio, beti ere suposatuz ikasle-idazleak interesa duela idatzizko argudio “zintzoa” sortzen, zintzotasun horren zimendua idatzizkoak Unibertsitate batean izan beharko lukeen estatusa litzatekeela, hau da, argudioan eta elkarlanean aurrera egin gura bat<sup>12</sup>.

## 2. ARGUDIOA

Nork bere iritzia ematearekin pozarren gera daiteke bat, baina hori ez da argudiatzea; argudiorako gutxieneko baldintza batzuk gertatu behar baitira. Argudiatzen jartzeko lehen urratsa argudioaren helburua adimugatzea litzateke: argudioaren zioak eta, horrekin lotuta, zer den eztabaidagai eta zer ez.

Argudioaren xedea entzuleriaren arauz definiturik, zertarako argudiatu pentsatzen dugunean, intuitiboki aterako zaigu gure jarreraz bestera edo asago dagoen entzuleria geureganatzekoarena. Alabaina, lortu nahi dugun zerbaiten gainean argudiatzen dugunean, ez dugu beti gurekin bat ez datozenekin egiten. Berez, argudio gehienak alde batekoak ez

---

<sup>11</sup> Joera da gurean “wasf” generoa lantzekoa, inongo helbururik gabe, huts hutsean eskolako lana dela eta. Bada garaia Bilintxen erretratuen helburu erretorikoak aztertzeke.

bestekoak ez direnei zuzentzen zaizkie, hau da, tartean daudenei, zirt edo zart egin gabe baina sinpatia pixka bat erakusten dutenei; argi dago gogo-atxikimendua edo pertsuasioa gradu kontua dela (Perelman & Olbrechts-Tyteca). Argudiogilearen eginkizunetako bat, beraz, oraindik erabat limurtuta ez dagoen audientziari ikuspegi berri batzuk eskaintzean datza.

Audientzia edo entzuleria (hartzaile multzoa) espektro horretako edozein puntutan egon daiteke: erabat ados egotetik erabat aldentuta egotera bitarte horretan. Argudioak entzuleria adostasunera hurbiltzea lortzen badu, nahiz eta oso gutxi hurbildu, bada garaitza askoa. Entzuleriak kasuan kasuko ikuspuntuari eduki liezaiokeen mespretxua gutxiagotzea ere bada garaipen mota bat. Aldeko dagoen audientzia bati zuzendutako argudioek ere badute ondorio praktikorik osterantzean, talde kohesioa sortzen baitute. Honen ildoan, esan genezake irizpideak batzen dituen argudioak ekintzarako prest dagoen giza taldea sortu duela<sup>13</sup>.

Bada argudioan sartzeko beste egoera mota bat ere, azalean helburu praktikorik ez daukagunekoak: alde batekoek “irabazi” arren, eztabaida horien ondorioz ezer aldatzen ez denekoa. Holakoetan gure argudioa beste edozein pentsalarirena bezain zorrotza izan daitekeela nahi dugu nabarmendu; argudiatuz dakiguna ikertzen baitugu, zenbateraino eta zelan dakigun puntu horretaz, besteak gurera zenbateraino ekar genitzakeen neurtuz. Hori guztia ez da gutxia.

Helburuak edo motibazioak aztertutik, goazen argudioaren lurraldea mugatzera. Badakigu gai batzuez eztabaidatzea arnasa eta hauspoa alferrik galtzea dela, haietan alde bakarra egon daitekeelako zuzen, erantzun bakarra da arteza, eta arteza dena egiazta daiteke: holako erantzun idorogarriei “datu” esaten zaie. Datua egiaztatu daitekeen baieztapena da. Gainera, holako baieztapenak galdera bihur daitezke, eta erantzuna bai ala ez izango da. Zehaztasunik ezin daitekeenean lor ez dugu daturik, kalkulu estimaturen bat baino: greba edo

---

<sup>12</sup> Honetan *Elkarriren* abiapuntuak erretorikoki erabat aurrerakoiak (eta eredugarriak) dira, zoru komunaren bila, ikus “zoru komunaz” aurrerago.

<sup>13</sup> Honekin lot daiteke hastapenetako mitoen zeregina ere; narrazio horiek taldea nola sortu zen kontatzen dute, eta kontaera kanonikoarekiko —gehiengoak onesten duenarekiko— bada aldentze eta alderatzeko posibilitaterik; norbanakoak bere burua narrazio horrekiko distantzia batera kokatuko du, eta horrela definituko gainera (Ernest G. Bormann, “Fantasy and Rhetorical Vision: The Rhetorical Criticism of Social Reality”. *The Quarterly Journal of Speech*. 58, (1972): 396-407). Jon Juaristiren obraz “desmitifikatze lana” aipatzen denean, hori da auzia: narrazioa deuseztaturik taldea deuseztatuko dela; hala ere, gogoratzekoa da taldea izan dadin beti egongo dela narrazioen bat, hots, hastapenetako mitoren bat, eta gainera lehiari dabilzan narrazioek ez dutela hobeto ala txartoago “azaltzen” errealitatea, baizik eta talde bat ala bestea bildu euren inguruan; horixe da “nazionalismoen” auzia. Beraz, taldeak audientziak dira, eta audientziak konpartitzen dituzten adostasunerako objektuek definitzen dituzte (Perelman eta Olbrechts-Tyteca 1971).

manifestazioetara joandakoei buruzko zenbakiak beti dira estimatuak, datu moduan aurkeztu arren; kontagarritasunaren itxurak ez du esan nahi elementuok kontatzeko mekanismorik egon daitekeenik.

Ez proposamenak ez balorazioak dira datu: proposamenetan gakoa “luke” tankerako aditzek emango digute, alegiazkotasunak esateko. Gainera, proposamenetan audientziaren erantzunak denetarioak izan litezke: proposamenari erabateko lehentasuna aitortzetik ideia barregarritzat jotzerainokoak, eta berdin balorazioekin.

Beraz, datuaren gainekoa labur dezagun:

1. Era jakin batera neurtzeko edo sailkatzeko ados gauden zerbaiti buruzkoa izan behar du datuak. Beraz datu-baieztapenak denboran edo espazioan neurtu dezakegun edo bikoiztasunik gabe identifikatu dezakegun zerbaiten gainean bakarrik egin ahal izango ditugu.
2. Bai-ala-ez bakarrik erantzun ahal izango diogu datu-baieztapenari, egiaztatua bada “bai” eta ez bada egiaztatu “ez”. “Beharbada” edo “seguritik” bezalakoekin erantzun ahal badiogu orduan baieztapen eztabaidagarri edo argudiagarria izango da.

Datua inferitzeko edo ateratzeko badira urrats batzuk hartu beharrekoak; jardunbide horri demostrazioa esaten zaio. Demostrazioaren helburua ez da entzuleria limurtzea, baizik eta emaitza onarraraztea. Argudioa eta demostrazioa diferenteak dira honetara: argudioak asko egin du baldin eta lortzen badu audientziaren kontrako jarrera ez hain aho batekoa edo biribila izatea. Aitzitik, hori ez da demostrazioaren helburua. Argudioek oinarritu egiten dute; demostrazioek, aldiz, frogatu. Demostrazioetan zirt edo zart egin behar da. Hori bai, eztabaida, eta oso sutua gainera, etor daiteke baieztapen bat “datua” denentz erabakitzean, edo datutzat joko direnak jasotzeko metodologiari buruz, eta beste. Adibidez, epaitegien helburua ez da litekeenari buruz ibiltzea, demostratzea baizik, nahiz eta, askotan, demostratzerik balego ez legokeen auzirik; epaitegietan kontua da ea gertaera bat jazo den, baina maizenik gertaera horrek utzi ohi dituen lorratzetan oinarritzen da “froga”. Halaber, Matematiketan ere axioma multzo baten arabera ondorioak frogatzea izan ohi da helburua; baina hemendik jende askok atera ohi du argudio zientifiko oro dela demostrazioa. Argudio



zientifikoak demostrazioaren indarra erabili nahiko lukeen arren, lortzen duenentz entzuleria kontu bat da. Argudio batek demostrazioaren itxura hartzen badu, oso indartsua izan daiteke limurtzeari dagokionez, hain zuzen horregatik dendatzen dira argudio gehienak demostrazio itxura hartzen.

Bestalde, sarritan erabili ohi ditugu “baina hori zeure iritzia baino ez da” bezalako esapideak besteari argudioa eteteko, zeren ezin badugu pertsonala ez den eta konpartitu daitekeen zorurik edo kutsurik eskaini, ezin baitugu argudiorik aurrera atera; hori aburua da, iritzia, eta iritzi hori beste iritzi batzuekin deskribatu ahal da. Orduan nor bere burua hobeto ezagutzera hel daiteke, baina ez dago argudiorik: zaletasuna edo gogokotasuna azaltzea ez da argudioa ematea.

Beraz, iritzia hauxe da: zaletasunaren gaineko baieztapena, erabat eta bakarrik kontu pertsonaletan oinarritua dena. Eta hauxe argudiorako gaia: baieztapen argudiagarria, entzule edo hartzaileen artean atxikimendu mailak lor ditzakeena, baina oinarriko zorua ez dautzalarik baieztapenari eusten dioten indibiduoengan bakarrik. Iritzi eta baieztapen argudiagarriaren arteko aldea ez datza pertsonengan, oinarrian baizik<sup>14</sup>.

Kontuz ibili behar dugu baieztapenak aditzera ematen diren adierazpideekin. Askotan “Bo, hau nire uste argala da” bezalakoak erabiliko ditugu gure baieztapenari argudio indarra kentzeko, bai ez delako egokia zuzenean kontra jardutea, edo ez gaudelako erabat oso esan berri dugunaren gainean, edo gure informazio iturriari eskasa deritzogulako. Beraz, maiz iritzi maila ematen diegu argudioaren lurraldean erabat sartuko liratekeen kontuei: esan nahi da badela alderik gaiaren eta egoeraren artean: “Badirudi LOUarekin Espainiako Gobernuak are gehiago kontrolatuko duela jakintzaren norabidea, “Universitas”en esangurari jazarrita, baina hori nire uste argala da”. Aitzitik, iruntzetarakoa ere ager dakiguke, hots, iritzi pertsonala baieztapen biribilaren itxuratan: “Eskiatzea ez da bat ere atsegina”.

Iritzia zer den jakiteko oinarriari begiratu behar zaio eta igarri ea erabat eta bakarrik pertsonaren zaletasunean oinarritzen den. Lehen esan bezala, datu bat baieztatzen badugu eta

---

<sup>14</sup> Gertaera politiko baten ostean, kazetariak Arzallusi doazkio iritzi eskean, eta Arzallusek erantzun: “nik zer uste dudan ez da garrantzitsua, jendeak uste duena baizik”. Erantzun honek lituzkeen zirrikituak gorabehera, Arzallusek kazetariari erantzun erradikalago baten atzetik joateko eskatu dio, argudioaren bila alegia, eta argudioa zimendatuko duen iritzi komuna: zein da *doxa*, eta zein *doxa* horrek ahalbidetzen dituen aukerak. Horrez landara, *doxa* bera aldatzeari ekin beharko dio kazetariak, jornala ordaintzen dion eskuaren alde noski.

gero baieztapen hori probatzen badugu, demostratzen ari gara, baina ez argudiatzen. Iritzi pertsonala adierazten bagabiltza eta berori azaldu, iritzia konpartitzen gabiltza baina ez argudiatzen.

Argudioek ez dute loturarik ez datuekin ez zaletasun pertsonalekin, litekeenaren edo probablea den tarteko lurralde horrekin guztiarekin baino. Aintzira bat lur barruko ur multzoa dela datua da, lakuan uda edo oporraldia ematea gustu kontua da, baina laku baten inguruan oporraldietarako eraikinak egitea ala ez hori argudiatu beharreko kontua da. Holakoek ez dute bai/ez erantzunik, borondate onez eta datu berberetz alde bietako edozeini eutsi ahal baitzaio. Argudio hori irabazten duenak ere ez du “egia” ezarri, bakarrik aukera baten zuhurtzia probablea edo litekeenekoa entzuleriaren begietan. Horrenbestez, definitu dugu zein den argudioaren lurraldea.

Alabaina, horrekin arazoa identifikatzea baino ez dugu egin. Orain edozein irakasgaitako irakaslea honetara jarri behar da: ikaslearen testua zuzendu edo neurtzerakoan, “edukiari” eta adieraz moduari begiratzea baino zerbait gehiagorekin gabiltzala, alegia, argudioak sortzeaz. Baieztapena egitea eta, ahal dela, esplizitu egitea ez da nahikoa; orain baieztapen horren susterrak ezarri behar ditu ikasle-idazleak: oinarriak ezin dira iritzi pertsonalak izan, eta bat-bateko idazlan batean datuak ez dira beti eskura —irakasgaiak argitu behar dio ikasleari zein diren eskura behar lituzkeen datuak eta nola erabili eurok idazlaneko edo azterketako argudio eraikuntzan—. Eta idazkuntza lantzen denean, nola ekarri “oinarriak” zoru pertsonaletik argudioak behar duen auzo-lur horretaraino, horixe da lehendabiziko galdera. Argudioa eraikitzeak zera esan gura du: zaletasun pertsonala dirudiena gizarteak ezagut ditzakeen datu eta konpartitu ditzakeen baloreetara ekartzea. Beraz, zaletasun pertsonaletik konpartitu daitekeen oinarriaren bila abiarazi beharko dugu ikaslea. Seguruenez, argudio sorkuntzan ikasle-idazlea sineste baieztapen batez hasiko da. Baieztapen horren jatorriak inon izatekotan emozioan izango du oinarria, pentsamenduan bainoago. Hurren, egoera batek eta entzuleria batek eraginda, begiratuko da ea zein diren sineste horri eusteko leudekeen arrazoiak. Behin “hain pertsonala” ez den arrazoiren bat atzemanetz gero, hasierako sineste hori birformulatu ahal izango da era ez hain pertsonalean, eta hola aurrerantzean ere.

Argudioaren lurraldea ezarrita, eta horrekin batera argudiatzearen jarduna, orain mugatu beharko dugu argudioa bera zer den. Argudio guztiek lau osagaiok izan beharko dituzte:

1. Tesi baieztapenen bat: oinarritu behar den baieztapenen bat, probabilitate kontu batez diharduena, eta ez daturik ezta zaletasun edo gogokotasun kontuez. Argudio orok, luzera gorabehera, azpian baieztapen bakarra du, nahiz eta oso argudio korapilotsuek azpiko argudio txikiagoak ere eduki ditzaketen, argudio nagusiaren alderdiren bat lantzen dutenak. Argudioaren egileak beti izan beharko du gai honako galderei erantzuteko: zein da funtsa? zer zabilta esaten? argudio osoa baieztapen horren alde sortu baita.
2. Tesi baieztapen horretaz limurtu beharreko audientzia edo entzuleria bat. Argudioak giza entzulea ere behar du —argudioaren helburua horixe baita— bai sineste bat sinestarazteko, bai entzuleek duten sineste batean sendotzeko, zein duten sineste horren arabera eragiteko. Entzuleria zehatz batek eragingo digu era batera edo bestera argudiatzera. Testu desegokiak entzuleria kautan ez hartzeagatik dira horren desegoki, eta ez beharbada gramatika arazoengatik.
3. Eskakizuna edo egoera erretorikoa: momentu batean ingurune batean edota helburu batekin argudiatzeko beharrezana. Benetako argudioa gerta dadin, plazaratzeren bat egon behar da. Argudioa dagokion sasoiari, behar bezalako ingurunean eta helbururen batekin gertatu behar da. Hauen faktore guztien bilguneari eskakizuna edo egoera erretorikoa deitu izan zaio<sup>15</sup>. Argudioak eskakizunari erantzungo dio berebiziko garaiari, egoerari eta entzuleriari egokitzen zaionean<sup>16</sup>. Ahozko egoeretan halako denborako eta lekuko eskakizunak ezinbestekoak dira, eta erraz antzeman daitezke, baina idatzizkoan besterik da; idazlearen oraina ez da irakurlearen oraina. Idazleak ezin du suposatuta irakurleak arazoaren larriari erreparatuko dionik, eta ezin du hitzaldia egokitu entzuleek harridura eta bestelako keinuen bitartez argitasunak eskatu ahala, entzuleak eta igorlea aurrez aurre ez daudenez. Idatzizko argudioak, berez dagokion irakurleriarekiko desoreka honi aurre egiteko, bere eskakizun propioa sortu beharko du. Idazleak irakurleari irakurtzeko arazoiren bat eman beharko

---

<sup>15</sup> Ikus: Bitzer, Lloyd F. 1968. "The Rhetorical Situation". *Philosophy and Rhetoric* 1: 1-14. Berrinprimatua: Lucaites, John Louis; Condit, Celeste Michelle, eta Sally Caudill. 1999. *Contemporary Rhetorical Theory: A Reader*. New York: Guilford Press. Eta kontrakoa: Vatz, Richard E. 1973. "The Myth of the Rhetorical Situation". *Philosophy and Rhetoric*. 6: 154-168. Berrinprimatua: Lucaites, John Louis; Condit, Celeste Michelle, eta Sally Caudill. 1999. *Contemporary Rhetorical Theory: A Reader*. New York: Guilford Press.

<sup>16</sup> Halandaze, politikan bortizkeriak ezer baino lehen horixe egiten duela: egoera erretoriko bat sortu, haren gainean jardun ahal izateko.

dio, saihestuko badu harako galdera beldurgarri hori: eta niri zer? Beste era batean esanda, entzuleriari egokitu beharrean, eskakizuneko argudioak berak sortu beharko ditu irakurle egokituak.

4. Oinarriak: arrazoiak edota, teknikoki esan ohi zaien bezala, *premisak*, hots, baieztapena oinarrituko dutenak.

Horiek lau osagaietatik bik esplizituki ageri behar lukete: baieztapena edo tesia eta premisa edo oinarria<sup>17</sup>. Ohar gaitezen aipatu ez dugun beste gauza batekin ere bagabiltzala lanean: ezarri gabeko (aurre)suposamenduekin alegia, zer ari garen azpitik onartzen. Ezin da inondik-eta ezer argudiatu ez badugu zer edo zer suposatzen: horixe da, hain zuzen, zoru komuna edo auzo-lurra deritzona. Auzo-lur hori barik ezin izango gara bat etorri; eta iruntzitara, bat ez datozenak auzo-lur hori beretzat hartzen ez dutelako izango da. Auzo-lur hori komunitate batek komunean dituen sineste eta aurreiritziak dira<sup>18</sup>.

Argudio orotan lau osagarriok ezin dira banandu: tesia, entzuleria, eskakizuna eta oinarria. Aldagarriena entzuleria da, gizabanako adina entzule izango dugunez —eta oraindik garrenean areago, pertsona bera talde, aldarte, egoera..., diferenteetan egon daitekeelako—. Argudio batek eskatzen duen oinarria baieztapen tesiaren pentsurakoa da, baina, era berean, zenbaterainoko oinarria beharko dugun entzuleriaren araberrakoa da, eta beraz, aski aldagarria. Nahi beste baieztapen tesi sor genitzake, gaiak askotarikoak direnez. Horigatik eta ere, lau tesi mota hauetara ekar genitzake: baieztapenek guztiek giltzarriko lau itaun hauei erantzungo diete:

1. zer da?
2. zelan heldu da hori izatera?
3. ona ala txarra ote da?

---

<sup>17</sup> Gurean gauza handitzat daukagu baieztapena zehatz eta esplizituki ez ematea. Uste dut behintzat bereizi beharko genituzkeela bi ikuspegiok: alde hermeneutikotik agian interesgarria izan daiteke irakurle trebatu eta zuhurak sortzea, baina alde heuristikotik idazle argiak sortu beharra ere badaukagu; argitasunaren alde handi bat esplizitutasunean datza.

<sup>18</sup> Weaverrek entzuleria zabaltzeak dakartzanak aztertu zituen: Richard M. Weaver, *The Ethics of Rhetoric*. Davis (CA): Hermagoras Press. 1985 1953: 27-54, “Dialectic and Rhetoric at Dayton, Tennessee”. Weaver 40etako Chicagoko eskola neo-aristoteliarrekoa zen.

#### 4. zer egin beharko genuke horren aurrean?<sup>19</sup>

### 3. GAUZEN NOLAKOA

Gauzen existentziaz ohartzea, izendatzea, sailkatzea, edota deskribatzea oinarriko ekintzak dira: “Hori katua da”, “Katua ugaztuna da”, “Ez da katurik Antartikatikorik”, “Katu hori txarto gobernatuta dago”, “Katuak ez dira inoiz erabat etxekotzen”. Lehen hirurak, egiaztatuz gero, datu baieztapenak dira izan; laugarrena eta bosgarrena aldiz argudiagarriak dira.

Esaldi hauetan guztiotan hiru gauza ezagut genitzake: subjektua, lotura aditza eta subjektuari buruz esaten dena<sup>20</sup>. Termino horietakoren bat ulertu gabean ere, antzeratsu sortutako esaldi guztiak ezagutzeko gai izango gara: “Futbola errito homoerotikoa da”, *homoerotikoa* zer den jakin barik ere esaldia kokatu egiten dugu, eta zatikia identifikatu.

Orain gauzen nolakoaren gaineko adierazpenak aztertzeke moduari ekingo diogu. Horretarako modu bat hauxe izan daiteke, banandu subjektua eta predikatua, begitu banan-banan eta gero euron arteko hartu-emanaz aztertu. Oro harturik, subjektuak honetan bereiziko dira: 1) abstrakzio maila diferenteak izatean, eta 2) zenbatekoan. Predikatuak, berriz, honetan bereiziko dira: entzuleriari predikatu hori zenbateraino definitu beharko zaion.

#### 3.1 SUBJEKTUAK

Ikasleak lehenik eta behin baieztapen nagusia egiten ikasi beharko du [XY da] tankerakoa, eta horretarako, entzuleria gogoan hartuta, trebatu beharko du subjektuak sor liezazkiokeen arazoak igartzen.

Subjektuak predikatuaren esparrua zehazten du, nortaz edo zertaz diogun dioguna. Batzuetan entzuleriak berehala harrapatuko du nortaz ari garen, beste batzuetan gehiago argitu beharko dugu. Hortaz, subjektuarekin izango dugun arazorik handiena predikazioaren esparruari

---

<sup>19</sup> Espazio mugak direla eta, hemen lehen baieztapen motaren parte bat baino ez dut azalduko, irakurleak metodoaren sunda behintzat har dezan.

<sup>20</sup> Darabilguna bezalako planteamendu batek izen sintagma barik subjektuaren kategoria berreskuratzen du. Onura azterketa semantikoaren mailan dago. Gainera badago posibilitate bat, Hallidayren ildotik, topikak erabili ohi zuen kategoriarekin bat egiteko (cf. adjuntuak), batez ere Boethius batek darabiltzanak. Halliday, M. A. K. (Michael Alexander Kirkwood) eta Ruqaiya Hasan. 1985, c1976. *Cohesion in English*. London, New York: Longman. Eta beste hau: c1994. *An introduction to functional grammar*. 2. ed. London: E. Arnold. Interesgarria ere bada ume euskaldun elebarkarrei “gustatzen zait” asko kostatzea ikasten, eta ez aldiz “erori zait”: esaldiotako

langak jartzearena izango da. Esparru horrek ekar lezake eztabaidarik, baina argudioa esaten dena predikazioaren gainekoa izango da. Gizakiok beti jotzen dugu jeneralizatzeraz, partikularra orokor egitera, gizakiok sailkatzea gogoko dugulako, eta horrela, subjektuak aurretiaz ditugun sailetan kokaturik ulertzen ditugu.

Argi dago subjektu abstraktuek emango digutela lanik gehien, abstrakzio hori egitean entzuleria osoak ez duelako gauza bera ulertuko. Kontua da, subjektu abstraktuekin lanean dihardugunean estrategiaren bat hautatu beharko dugula zehatzago hitz egiteko horretaz; entzuleriaren gaineko ezagutzak edo susmoak lagunduko digu behar bezala murrizten gaia. Abstrakzio horiek guztiok definizioa eskatuko dute: argudiatzen jarraitu baino lehen, errealitatearen esparruren bati langak jarri beharko dizkiogu.

Bestalde, subjektuak dakarren kopurua mugatua edo zehaztugabea izan daiteke. Gauzen nolakotasunaz argudiatzen dugunean maiz sarritan taldeko *batzuk baina ez guztien* gainean dihardugu. *Batzuk* edo *asko* bezalako graduatzaile mugagabea darabilgu jakin dakigunean ezin diegula taldeko kide guztiei predikatua erantsi, baina ez dakigunean (edo jakiterik ez dagoenean) taldeko zenbati lepora dakioken<sup>21</sup>.

### 3.2 PREDIKATUAK

Subjektuari buruz esaten duguna predikatua da. Baina ezin ditugu predikatuak sailkatu subjektuak sailkatu ditugun erataraz, hau da predikatuak entzuleriaren arabera hobeto edo txartoago dabiltzalako. Honetaz, predikatuak sailkatzeko begiratuko da ea datua edo egitatea den ala baieztapen argudiagarria, eta azken kasuan, zein garreneko argudiagarritasuna duen. Bestalde, datuaren eta baieztapen arteko muga ez da hain garbia askotan, baina graduak igarri igar daitezke. Datuen gainean desadostasuna dagoenean, gaia argudiagarria da. “Iradier esploratzaile ausarta izan zen” baieztapena argudiagarria izan arren, nekez aurkituko baitugu hau demostratzeko daturik, eta hala ere, jendeak onartu egingo du berehalakoan, segurutik hainbeste bider entzunez gero onartzeko prestago gaudelako, edota segurutik hizlariaren borondate onean oinarriturik, ustez-eta inork ez duela inor engainatzeko asmorik. Guztiarekin ere, “ausarta” terminoak ez du esanahi finkorik, eta agian historiagileren batek “ausarta”

---

subjektuak diferenteak direlako kasu bakoitzean apika, batean nor sintagma da subjektua, eta bestean nori sintagma.

<sup>21</sup> Pare bat-edo, gutxi batzuk, bizpahiru, hirutzuk, honen adina, horrenbat, batzuk, batzuk-batzuk, hainbeste, asko, mordo bat, kopuru handi bat, zenbat-gura, gehienak, den-denak ere ez, guztiak... Mugagabeak izanda ere, hauek guztiak gutxitik askora sailka daitezke. Hemen, Izen Sintagmaren alderdi gramatikalez harago, alderdi semantiko-pragmatikoez jabetu beharko da ikaslea.

terminoa defini dezake Iradier kanpoan utziaz. Alabaina, orain egin dezagun baieztapen hura bota dugula elkarte Euskal-Afrikarreko kideen aurrean, orduan desadostasuna “esploratzaile” terminoan egon daiteke, eurok euren buruak aspaldi baitzituzten esploratuta; haugatik, predikatua osatzen duten bi terminoek izan dezakete zer definitu. Beraz, predikatuan zenbat termino definitu behar ditugun, eta zenbaterainoko zehaztasunez, horrek erabakiko du gure baieztapenaren argudiagarritasuna.

Batzuetan gauzen nolakotasunaren gaineko adierazpen bat instantzia partikularren laburpen orokortzat jo daiteke. Beraz, gauzak deskriba daitezke bai orokorki zein adibideak emanez.

### 3.3 ESTRATEGIARIK BEHINENA: ADIBIDEAK

Gauzen nolakoaren gaineko baieztapena oinarritzeko estrategiarik behinekoena adibideak ematean datza. Hiru adibide mota bereizi izan dira tradizio zaharretik hona: adibide zehatza, iteratiboa eta asmatuzkoa. Adibide partikularrek edo zehatzek egoera, gertaera edo objektuak deskribatzen dituzte, leku bati, denbora bati edota pertsona bati lotutakoak. Holakoak oso eraginkorrak dira argudio eraikuntzan, beste begi batzuekin konpartitu daitekeen errealitate bat sortzen dutelako.

Adibide iteratiboek edo maiz gerta daitezkeenek pauso bat ematen dute orokortasunerantz. Izan ere, gertaera bat aurkezten dute halako maneran non ematen duen gertaera hori sarri errepikatzen dela: ohi, sarri, usu, maiz, -(z)en bezalako markak eramango dituzte. Euren onenean, instantzia errepikatuak ekarriko dituzte gomutara, irudi espezifikoak ere sortzen duten bitartean.

Zenbat-gura bizipen espezifiko eduki arren, ez dugu beti adibide zehatzetara edo partikularretara jotzen, zehatzetik orokorrera gabiltza, adibide iteratiboetatik igaroz. Areago, sarri askotan adierazpen orokorra oinarritzeko adibideen bila gabiltzanean, bakarrik jaisten gara begi bat orokortasunaren katean, eta adibidetzat jotzen ditugunak ez dira beherengoko mailako adierazpen orokorrak baino, edo adierazpen ez hain orokorrak. Komeni da adibide zehatzak jartzea, alde batetik kontaketa biziagotzeko (eta beraz, irakurketa errazteko), eta bestetik, irakurle gehienak *adosago* daudekeelako idazlearekin froga zehatza, gertaera erreal, konpartitu ahal dutenero.

Alegiazko adibideak edo asmatuak irudimenezkoak dira, fikziozkoak, beren beregi sortutakoak. Egileak, beraz, nahi beste xehetasun erantsi ahal die. Kontuz eduki behar da honekin, zeren egileak esaten badu zerbait benetan gertatu zela eta gero hartzailea konturatzen baldin bada asmatua dela, hizlariak sinesgarritasun guztia galduko du. Askotan definizio ideala eraikitzeke erabiltzen dira, baita prozesu kausaletan ere, erakusteko zelan dabilen harako prozesu kausala (“imajinatu zu ari zarela...”, “balitz legez”, etab.).

Adibideez gabiltzala, berez-berez sortuko zaigu galdera hau: zenbat adibide beharko ditugu? Hau da, adibidearen tipikotasunari buruzko galdera: adierazpen bat oinarritzeko ekarritako adibide bakoitzean, adibide horren tipikotasunari buruzko uste, edo iritzi, edo defentsaren bat egon behar da. Tipikotasun hori behar bezain indartsua bada, nahikoa izango dugu adibide bakar batekin. Entzuleriak zenbat eta tipikoagozat jo gure adibidea, orduan eta adibide gutxiago beharko ditugu; azken batez entzuleriak adibideetatik gure baieztapenera egin beharko du salto. Jauzi horrek txikia iduri beharko du, bestela entzuleriak ez du urrats hori eman nahi izango.

#### 4. DEFINIZIOAREN BEHARRA

Subjektuek behar dutenean definizioa edo azalpena, definitze mota hori basoa garbitzea bezalakoa da: gauzak argitzea baieztapena berbetara baino lehen, hots, mintzagaia ezarri. Aitzitik, oso bestera da definizioa predikatuek behar dutenean, horrek lotura zuzena baitauka argudioaren beraren eraikuntzarekin; predikatua definituz eraikiko da argudioa.

Definizioa noraezeko bilakatuko da baieztapena argudiagarria denean. Predikatua zenbat eta argudiagarriagoa, orduan eta definizioa beharrezkoagoa, bestetara esan, zenbat eta predikatu batek definizioa beharrago izan, orduan eta baieztapena argudiagarriagoa. Eta hortik hauek aholkuok:

1. Predikatuaren definizioa funtsezkoa baldin bada egin nahi dugun baieztapenerako, azal eta zabal jar dezagun.
2. Ez dezagun ezar, ez eta are inplikatu ere, entzuleriak onartuko ez duen edo bat etorriko ez den definiziorik, behintzat aurretik definizio horren gainean argudiatu baino lehen.



Entzuleriak berehalakoan onartuko badigu argudiorako predikatu giltzarriaren definizioa, ez dugu definizioa esplizituki edo agerian eman beharko. Baina holako kasuetan, ageriko definiziorik beharrezko ez denetan, ez dago lar eztabaidatzekorik, horren erraz onartuko diren baieztapenek ez baitute idatzizko argudio luzerik beharko. Baieztapen sinpleetarako adibideetara jo genezake zuzenean, predikatu guztiek oso begi-bistako esangura dutelako entzuleria gehienentzako. Edozein kasutan araua hauxe da: entzuleriak erabakiko du beti argudiogileak izan lezakeen definitzeko beharra.

Zer gerta daiteke entzuleriak ulertzen edo onartzen ez duenean predikatuan ageri dugun terminoren baten esangura? Audientziakoek aterako duten definizioa eman zaizkien adibideen bitartez lortuko dute, baina bakarrik adibide horiei estu lotuta, eta horrek, ulermenaz kanpora, argudiatze zirkularraren arriskuak jartzen ditu nabar. Bakarrik utzi ahal izango ditugu predikatuko terminoa(k) definitu barik argudioan larregi jokatzeko ez dugunean eta entzuleriak berehalakoan onartuko d(it)uenean termino(ar)en esangura(k). Zehatzago, hurrengo kasuetan definizioak parte hartu behar du halabeharrez argudiatzean:

1. Gure entzuleriak agian ulertuko ez duen argot terminoa darabilgunean, edota termino teknikoa edota espezializatua darabilgunean: Argota talde baten hizkera pribatua da; erabiltzaileen taldetik kanpo erabiliko bada, hizkera hori definitu beharko da. Lanbide gehienetan argota erabili ohi da, lanbideari berezko zaion idiolektoa edo teknolektoa<sup>22</sup>. Erabili ohi diren terminoek oso esangura zehatza dute taldekideen arteko jardunean, baina ez kanpotarrentzako<sup>23</sup>.
2. “Benetan” edo “berez” edo “oinarrian” edo “egia esan” bezalako markaren bat predikatuari eransten diogunean, terminoaren definizio berri edo probokatzaileria egingo dugula iragartzen duena: bere izaeragatik beragatik, funtsean, muinean, esateko: “Ez du euria egiten, esateko”.

---

<sup>22</sup> Badago herri uste bat, alegia, teknolektoko esangura dela zuzena, eta gainontzeko hilkorrok berriz, era “laxo”an darabilgunok, txarto darabilgula. Kasu honetan interesgarria zera da, herri ikuskerak orokortasuna gutxiesten duela, espezifikotasunaren alde, eta hemendik datorrela bigarren hizkuntzen irakaskuntzan lexikoari garrantziarik ez ematea. Agian emankorragoa izango zen “zereko zerako zera edo traste” edo “hori ere halakoa gainera” esaten ikastea. Ikus Kay 1986 eta Lewis 2001.

<sup>23</sup> Azalpen honek begi-bistakoa ematen badu ere, horretan datza gure museoen eta gida turistikoetako azalpenen desegokitasuna: zein da delako katedralaren deskribapena idatzi zuenak buruan izan zuen entzuleria? eta nor utzi du kanpoan? Gurean dabilen ustea honetara azal daiteke: zenbat eta ilunagoa testua, orduan eta “teknikoagoa”, eta beraz maila altuagokoa, hots, hobe (kontrakoa pentsatu beharrean).

3. Termino berriren bat asmatu edo zahar bat metaforikoki darabilgunean, edo sail berri bat sortu dugunean subjektua barruan kokatzeko asmoaz. Baieztapenok normalean lotu ohi ez diren subjektu eta predikatuak lotzen dituzte, entzuleria akuilatu eta gaia modu berri batez ikusarazteko. Ondorioz, sarritan baieztapen ausartegiak ditugu, baieztapena urrunegira daroatenak. “‘Opium’ lurrina iragartzea *kutsadura psikosoziala* da”, “Institutu publikoak *grebaolak* dira”; “grebaolak” eta “kutsadura psikosoziala” asmatuzko terminoak dira, arian asmatuak, eta predikatuaren definizioa eskatzen dute. “Ume euskaldunak desagertzeaz dagoen espeziea dira”; hemen berriz “desagertzeaz dagoen espeziea” termino ezaguna da, baina asmatu dena subjektu horri lotzea izan da; hala, subjektuak eta predikatuak elkarre harrigarria egiten dute. “Desagertzeaz dagoen espeziea” hartzaileak berehala ulertuko du, baina eginago dago osterantzeko testuinguruari aplikatzera, otsoa edo arrano beltza bezalako espeziekin lotuago alegia.
4. Termino orokor bat birdefinitzen dugunean, edota bere esanguraren parte txiki bat erabiliko dugunean eskura ditugun datuekin bat eratortzeko. “Filologia klasikoko irakasle elebakarrak *ignoranteak* dira”, “Ezer ez egitea *sorketa lana* da”. Baieztapenotarik bakoitza baieztapen ezohikoa da, eta beraz, argudiagarria. Baieztapenotan edozein oinarritzeko predikatua definitu beharko da subjektuari buruzko datuak horretara egokitzeke. Definizio zabal batetik alde murriztago bat hautatu beharko dugu, eta edo atzera eragin (errefutatu) edo definizio zabal horretatik ondo egokitzen ez diren parteak bazter utzi. Argi da momenturen batean datuetara jaitsi beharko duguna; baina irakurleari azal eta ageri esana zaio definizioaren zein zati ibiliko den lanean.

Harako hautazko definizioak esanguraren alderdiekiko eta entzuleriarekiko usaimen fina eskatzen du. Alde batetik ezin dugu hain estu edota hain bitxi definitu zein entzuleriak ez digun esangura onartuko, murriztegi edota partikularregi definitu dugulakoan. Beste aldetik, zabalegi definitzea ere saihestu behar dugu, terminoak bere baitan dena hartuz gero, letozkeen adibideak batereztu egingo litzaizkiguke eta.

Honez aterantz, gogoratu behar dugu entzuleriak daukala azken hitza, eta ikusten badugu egitera goazen baieztapena ez digutela berehalakoan onartuko, agian definitzea komeni zaigula, hain zuzen, entzuleriak aitzakiatu diezaionari aurre egin ahal izateko.

#### 4.1 DEFINIZIOA NON KOKATU

Orain antolakuntza arazo bat sortuko zaigu: definizioa non jarri testuan barrena. Testuliburuetan definizioa karratutxo baten barruan ageri ohi da, artikuluko tekniko edo zientifiko batean hasieran eta al bait arinen etorriko da, segurutik azterketetan ere ber gauza egingo da. Horrela ebaluatuko den azterketetan definizio isolatu esplizitu batez hasia hastera taktikarik onena izan daiteke, erakustearren badela funtsezko terminoaren esangura ezagutzen. Ordea, beste idatz egoeretan, entzuleria orokorragoarentzako artikuluko batean adibidez, idazleari zera eskatuko zaio: zorrotasuna eta irakurteraztasuna. Ikus ditzagun bi posibilitate: definizio isolatua eta definizio sakabanatua.

Batzuetan argudio batek ezin izango du aurrera egin, horren predikatua ez badugu osotara eta behingoz definitzen. Entzuleria aditua ez denean eta gaia bai teknikoa berriz, definizioa hasieran etorri behar da. Osorik eta erabatera ematen den definizioa definizio isolatua da. Definizio isolatua esaldi baten luze-laburrekoa izan daiteke, oraintxe bertan eman duguna lakoa, edota paragrafo bete luze edo gehiago; luze-laburrak ez du axola, kontua da dena batera ematea. “Gure osaba Gaizka intelektual bat da” baieztapena daukagula, hartuko genuke predikatuko terminoa, “intelektuala” eta berehalakoan definitu, eta gero definizio horrekin bat datozen gure osaba Gaizkaren hainbat adibide, hartara testua egituratuta aterako litzaiguke.

Gauzen nolakotasunari buruzko argudioen definizio arazoak garbitzeko bigarren bidea atal askoko definizioa eraikitzea litzateke. Definizio hau testuan barrena sakabanatuko da, aldi berean definizioaren behar logikoa aseaz eta testua antolatuz. Definizio sakabanatua ondo datorkie atributuka bereiz daitezkeen hitzei, hots, hitzen esangura atributuen zerrenda bezala azaldu daitekeenean. Hala ere, ez genuke horretarako lana ere hartuko ez bagenu atributu bakoitzeko adibideren bat. Eta, guztiarekin ere, predikatuko terminoa definitzea eta adibideak bilatzea buruz buru dauden prozedurak dira, elkar elikatzen dutenak; hau da, ez dugu jakingo zein adibide bilatu behar ditugun ez baldin badakigu zeren adibide diren. Hartu “Gure osaba Gaizka intelektual da” adibidea. “intelektuala” terminoa definitu behar dugu. “intelektual” terminoa zatikatu behar dugu zati txikiagoetan, abstraktutik partikularrera; eman genezake “intelektuala” berba atributu eta ekintzen zerrenda bat bezala. Atributu-ekintzen erreskada

horren arabera, intelektual bat, besteak beste, asko irakurtzen duen pertsona da. Beraz horri egokitzen zaion adibideren bat aurkitu beharko dut: aipatu ahal dugu gure osabak hiru mila liburu dituela bere etxeko liburutegian, ez duela sekulan telebista ikusten beti dagoelako irakurtzen, eta holakoak. Gero joan gaitezke banan-banaka, atalez atal, eta horrek gure idazlana egituratuko du.

#### 4.2 NOLA DEFINITU

Behin ikusita definizioak har lezakeen testu hurrenkera, definitzea bera zelan egin daitekeen azaltzea lotzen zaigu. Horrek definizio motak bereiztera eroango gaitu.

Ikusi batera, definitzeko metodarik azkarrena sinonimoa litzateke: ulertzen ez den hitzari esanahi bertsuko beste hitz bat erantsi eta kito. (adib. “Irolak edo komunak”)<sup>24</sup>. Edozein kasutan, helburua hauxe da: hitz arrotza ezagutzen den elearen bitartez argitzea. Batzuetan baina, hitzek ez dute kidekorik, ez euskalki batetik bestera ez eta hizkuntza batetik bestera ere, orduan perifrasi baten bitartez azaldu behar da esangura. Batzuetan berriz, sinonimoa ez da bakarrik definitzeko erabiltzen, indarra emateko baino. Oro har, sinonimia ez da bakarrik erabiltzen hitz ezezagunekin, inoiz hiztegian begiratuko ez genituzkeen hitz andanak ere behar izaten baitute argirik: “Lehendakariak gainditu beharreko funtsezko azterketa” esaldiari erantsi, adibidez, “erabakiko duena ea datozen hauteskundeetan ere lehendakaritzara berriro aurkeztuko den”.

Genus/diferentzia definizioak —zein sailetan sartzen den eta zertan aldentzen den besterengandik— bi zati ditu: lehenik eta behin definitu beharreko hitza genusean edo sail edo talde zabalago batean kokatzen da. Bigarrenez aipatu egingo da zein ezaugarri berezi dituen elementuak, sail horretako beste kideengandik bereizten dutenak, diferentzia alegia. Harpa, adibidez sokazko instrumentua da (genus), holako eta halako antza duena (diferentzia); asteroidea planeta txikia da (planeta=genusa, txikia=diferentzia). Tankera honetako

---

<sup>24</sup> XVIII. mendeko idazleek asko erabili zuten teknika hau hegoaldean, hain zuzen Larramendiren ondorioz taxuzko sermoiak idazteari eutsi zioten idazleek, sermoi hori ahalik eta euskalki gehienetan ulertua izan zedin: adibidez “hitza, boza edo berba” esango zuten. Bestalde kontura gaitezen, berria den terminoa lehena eman ohi dela, eta azalpena bigarren lekuan; atsotitzekin hala gertatzen da eta Turnerrek ere (1991) analogiarekin ahal gertatzen dela dio, definitu beharreko terminoa lehena. Eguneroko euskaran hala gertatu ote den galdera empirikoa da. XVIII idazleekin erkatuta balegoke alderik Otxoa Arinek dioenean “ez dela lomesmo edo hainbat” ondoriozta genezake “lomesmo” ari dela definitzen, hau da, erdara irakasten. Alabaina, agian hain modu hertsian jarri beharrean hobeto genuke idazlearen posibilitateak aztertzea, adibidez, *Ad Herenniumen* ageri zaizkigu bi sarrera motekin erkatutik: zuzena eta zeharkakoa; zuzena entzuleriak onartuko duenean, zeharkakoa berehala onartuko ez den zerbait dagoenean. Eta hemen ere: 1) ezezagunetik ezagunera, idazleak azalpena eman nahi du, edo terminoa ohi ez bestera mugatu nahi du; 2) ezagunetik ezezagunera, idazleak “proposamen hobea” dakar, hau da, asmo didaktiko-preskribatzailea.

definizioak egiteko esanguraren alderdi diferenteaz ohartzeko trebetasuna behar izaten da. Behar izaten den beste trebetasun bat zabalegia izango ez den genusa aurkitzea da. Behin definitu beharrekoa sail zabalago batean kokatuz gero, sail horretatik aldentzeko bideak aurkitu beharko ditugu. Elementu hori sail zabalagoko beste gainontzeko elementuetatik bereizteko modu batzuk hauexek izan daitezke:

- Zeren antza duen: itxuran oinarritutako definizioa; “ikus” daitezkeen objektu fisikoak definitzeko.
- Zelan egin daitezkeen edo abian jarri; Osagarriak askotan aipatzen dira holako definizioetan, baina indar handiena prozeduran jartzen da: normalean denbora zehatz batean gertatzen diren prozedurak izaten dira horrela errazen definitzen direnak, ekintza fisikoak, ariketa fisikoak, etab.
- Zer egiten duen edo egin beharko lukeen: Batzuetan badaiteke alderik egotea gauzak egin beharko zukeenaren eta egiten duenaren artean. Teoriatik praktikara dagoen edo egon daitezkeen jauzia ager liteke, eta orduan horixe genuke proposamen baterako lehen urratsa; aldiz, jauzi hori badela agerian jartzea ebaluaketarako lehen pausoa izan daiteke.
- Zerez dagoen egina; objektua zerez dagoen egina aztertzeko edo zeintzuk diren bere atalak adierazteko objektuak dituen osagarri batzuk edo guztiak aipa genitzake. Bereizketa mota honek emaitza onak ematen ditu osagaiez egindako gauza bat denean. Hori eta ere, definizio mota hau ez dagokio bakarrik objektu fisikoren bati; gauzaren bat atalka zatitzen dugun bakoitzean sakabanagarria izan daitezkeen definizio bat sortzen ari gara, paragrafo oso bat edota saiakera oso bat antola dezakeen egitura, alegia<sup>25</sup>.

Adibideen bidez ere defini daitezke, gorago azaldu legez. Hitz askok gauza anitzen multzoa esanahi dutenez, hitz horiek defini daitezke bilduma horretatik adibideren bat edo batzuk nabarmenduz. Kontuan har dezagun adibide bakarra ematen dugunean bi arriskutan eror gaitzkeela: 1) Entzuleriak xehetasun garrantzi gabeak eta garrantzitsuak nahas ditzake, eta 2)

---

<sup>25</sup> Kontura gaitzeen Arestik eta Atxagak erabili dituzten alfabetoen eraginkortasunaz.

Adibidea zehatzegia baldin bada ez da esangura orokorrik aterako. Adibideak oso onak dira entzuleari irudi bizia dakarkiotelako gogora, baina ondoen beste definitzeko metodo batekin batera erabili beharko genuke, hain zuzen zirkulartasuna saihesteko.

Definizio etimologikoak nabarmen jartzen ditu hitzaren osagaiak, edota hitzaren jatorria. Definizio etimologikoa batzuetan modurik zuzenena da termino ezezagun bat azaltzeko, batez ere hitz teknikoak direnean, ia-ia itzulpen zuzena egiten dugulako. Adibidez, “patriarkalismoa aitaren agintea da”<sup>26</sup>. Alabaina, argudiatzen gabiltzanean, definizio etimologikoak lagun diezaguke argudiatu nahi dugun definizioaren partean indar egiten: “Ekologia eta ekonomia eskuz esku ibili beharko ziren, zeren...”. Kontura gaitezen zein indartsua den argudio modu hori, gizakiok uste baitugu hitza eta objektua esentzialki daudela lotuta, eta ez modu arbitrarioan.

Definizio genetikoak, hitzaren jatorria eman barik, gauzaren jatorria ematen du<sup>27</sup>. Definizio genetikoa erabilgarrien suertatzen da jatorri ezaguna edo ezagutzen erraza izan dezaketen objektu edo ideien ordezkari diren hitzetarako: adibidez, erriflea edota sandwicha. Erabilgarrien suertatzen da entzuleari berbak berak ez dionean lar adierazten, eta bai berriz objektuak edo azpian dagoen ideiak. Definizio historikoak edo genetikoak argudioaren alde egingo du, esaterako, ideia jatorrizko esanguran oinarri hartu nahi dugunean, esatea legez “neuk darabilt hitza zuzen”. Berba batzuetarako, batez ere iraganeko ideiak adierazten dituztenak, definizio historikoa eraginkorrena suertatzen da.

Ezekkako definizioa oso erabilgarria da: batzuetan gauza bat zer den esateko modurik onena gauza zer ez den esatea izan daiteke. Modu hau lehian dauden esangurak ebaki eta garbitzeko erabili ohi dugu, hartara, behar dugun esangura isolatzen laguntzen digulako. Beste batzuetan, ordea, ezezkako definizioa da besterik ezean esanguratik eman genezakeen gauzarik hurbilena. Baina kontzepturako terminoa badenean, ezezkako definizioa identifikazio positiborako preludea izan daiteke. Ezezkako definizioak bi teknika emango dizkigu: eliminazioa eta kontrastea. Eliminazioa baso garbiketa bezalakoa da, kentzen baditugu zertzuk ez diren, entzuleriak argiago ikusiko du zer izan daitekeen. Kontrastearekin, berriz,

---

<sup>26</sup> Adrienne Rich, *Of Woman Born*.

<sup>27</sup> Gurean asko dabil definizio mota hau, linguistika deskribatzeko, adibidez, linguistikaren historia azaltzen digute, edota literatura irakasteko, literaturaren historia, eta holakoak. Zein izango zen gure harridura matematika irakatsi ordez matematikaren historia irakatsiko baligute.

hurbileneko alternatiben artean diskriminatzea lortzen da, entzuleriak oker har ditzakeen posibilitateen artean diskriminatzea alegia.

Marxek “erlijioa herriaren opioa” bezala definitu zuenean irudipenezko definizio bat sortu zuen, hau da, tratatzen ari garen terminoa eta berez harekin zerikusirik ez duen beste termino baten arteko konparaketa. Erlijioa ez da harako lobelar batetik eratorritako produktu bat, baina, erlijioak ondorio narkotikoak ei dauzka errealitateaz ohartzeari dagokionez. Definiziook oso gertu daude aforismotik, hain izaten dira gogoratzen errazak, onak izanez gero. Aitzitik, terminoa berez ez bada aurretik ezagutzen, irudipenezko definizioak ez dio onik egingo argudioari; hots, ez badakigu zer den erlijioa, herriaren opioa dela jakiteak ez digu ezertan lagunduko argudio horretan. Beraz, definitzeko baino, beste zerbaitetarako balio digu irudipenezko definizioak.

Demagun auzoak eskatzen digula balkoiko landareak inausteko, eta guk ez dakigula piperrik ere inaustez. Auzoak krisantemo berrien etorkizun hurbilaz axolarik badu, hobe du ondo-ondo azaltzea zer den inaustea. Esan ahal digu, “hara, bakarrik kendu oso hosto lehor eta horixkak”. Auzoak inaustea “hosto lehor eta horixkak kentzea” bezala definitu digu. Definizio operatiboak terminoa leku eta aldi zehatz baterako definitzen du. Kasu serioagoetarako ere erabil daiteke. Adibidez, “lehendakari ona” izatea zer den definitzen gabiltzanean, batek esan lezake, “langabezia ehuneko seira baino gutxiagora dakarrena da lehendakari ona”; behin definizioa onartuz gero, gainerakoa datu kontua litzateke: lehendakari honek lortu zuen, eta beraz ona da, eta beste hark ez eta beraz txarra da. Ordea, beste batek esan lezake adibidez, “lehendakari ona da euskalduntze maila ehuneko 50era dakarrena”, eta abar. Eztabaida, hortaz, definizio operatiboaren inguruan garatuko da. Entzuleriak behin onartuz gero, definizio operatibo horri loturiko auzi oso bat erabaki daiteke, horregatik egiten dira horrenbeste ahalegin definizio operatiboa ezartzeko asmoaz. Baina, definizio mota hau oso erraz egon daiteke “oker”, batez ere zenbakien parafernaliak eramanda<sup>28</sup>. Oro har, definizio operatiboak ondo dabilta neurtu daitekeen eta gero etiketatu daitekeen edozerekin, eta asegarri dira definizio partzialak aski direnean; ez dabilta hain ondo, ordea, kontzeptu abstraktuekin, kontzeptua ezin delako zenbakietara ekarri, berezko duen esangura zatiren bat bidean galdu gabe.

---

<sup>28</sup> Adibidez, Aznarrek euskal gizartea gizarte heldugabe bezala definitu zuen azken hauteskundeak galdu zituenean EAEn. “Euskal gizartea gizarte heldugabea da” baieztapena oinarritzeko definizio operatiboa erabiliko

Definizioa bera oinarritzeko autoritatea edo aipua erabil daitezke. Zenbat eta zehatzago definitu gure terminoak, orduan eta sinesgarritasun handiagoa lortuko dute gure argudioek entzuleria gehienen begietan. Alabaina, agian gurea dugun definizioa ez du entzuleriaren batek onartuko, eta orduan sendoago oinarritu beharko dugu. Definizioa oinarritzeko metodorik onena terminoa guk darabilgun bezala erabili duen autoritadedun norbait ekartzea litzateke<sup>29</sup>. Autoritadedun norbait hori hiztegia izan daiteke kasu batzuetan. Hiztegiak esanguren aukera ematen du, hitza *normalean* nola erabiltzen den. Guztiarekin ere, batzuetan hiztegiak ez du terminoa behar bezain fin eta zorrotz definituko, eta orduan agian aditu baten berbak ekarri beharko ditugu hizpidera, dela aditu horrek terminoa bera asmatu zuelako, dela aditu hori arlo horretan egin dituen lanengatik ezaguna delako.

## 5. ONDORIOAK

Ondorio praktikoak baino ez ditut aipatuko. Honainokoarekin ikasleak ikasi du erabiltzen oinarritzeko teknika bi: adibideak eta definizioak. Horiek, idazkuntzaren testuinguruan, funtsezko teknikak dira. Definizio motak eta adibideak lagunduko diote testuaren hurrenkera antolatzen, baina hori baino lehen jakin behar du zein definizio mota erabili behar duen, eta horretarako ikertu zein diren egingo duen baieztapenaren osakinak.

Ikasi ere egin du baieztapena sortzen eta konturatzen baieztapenaren alderdi bien eragin erretorikoaz: subjektuak mintzagaia emango dio, eta mintzagaia zehaztuta egon behar da nahasterik ez sortzeko, eta predikatuak izango dituen atribuzioek eratuko dute argudioaren muina. Beraz, mintzagaiak gidatuko du hautatu beharreko definizio motara, eta definizioak, berriz, bilatu beharreko adibideek nolakoak izan behar duten.

Nola bilatu bai batzuk eta bai bestetzuk, argudioaren lau alderdien ezagutzaren arabera izango da: zer daki entzuleriaz ikasle-idazleak? Zelakoa da egin gura duen baieztapena (zein galdera motari erantzuten dio, behin erabakita ez dela ez datua ez zaletasun pertsonala)? Zein da eskakizuna (sortu behar ote du eskakizun hori idatziz)? Zein dira entzuleriarekin konpartitu ditzakeen eta oinarri multzoa eratzen duten uste eta sinesteak?

---

zuen, eta horretarako hauteskundeetako datuak. Datu horiek, noski, interpretaturik datoz hilabete batzuk lehenago hedabideek sortutako iritzi komunaren barruan.

<sup>29</sup> Honek ere baditu bere intzirikatuak: adibidez muturreko eskuma modernoko egunkari batek, *La Razón*ek Chomskyren aipuak erabiliko ditu testuingurutik kanpo —Chomsky libertarioa den arren edo hala delako—, eta azken honek ingelesaren inposaketaren kontra esandakoak lehengo haiek euskararen normalizazioaren kontra erabiliko dituzte.



Hemendik abiatuta lanerako bide bi geratuko litzaizkiguke: alde batetik konpartitu daitezkeen oinarri horiek nola bilatu aztertzea —eta hemen sartuko zen INVENTIO hura, batez ere irakasleak gogoan badarabil azterketa momentua—, eta testua eratuta zein diren ikasleak egiten dituen kohesio hutsak.

#### BIBLIOGRAFIA AIPATUA

- Baranov, A.G. 1997. “Kogniotipichnost’ zhanra (The Cogniotypicality of Genre)”. *Stylistyka*.6, 331-343.or. Ingeleseratutako zatikiak hemendik: Cambridge Scientific Abstracts. Datu-basea: Linguistics and Language Behavior Abstracts.
- Bitzer, L.F. 1968. “The Rhetorical Situation”. *Philosophy and Rhetoric* 1, 1-14.or. Berrinprimatua: Lucaites, J.L; Condit, C.M; Caudill, S. (arg.). 1999. *Contemporary Rhetorical Theory: A Reader*. New York: Guilford Press.
- Bormann, E.G. 1972. “Fantasy and Rhetorical Vision: The Rhetorical Criticism of Social Reality”. *The Quarterly Journal of Speech*, 58, 396-407 or.
- Duffy, E. 2002. “Sentences in Harry Potter, Students in Future Writing Classes”. *Rhetoric Review*, 21, 2, 170-187.or.
- Fahnestock, J.; Secor, M. 1990. *A Rhetoric of Argument*. New York: McGraw-Hill, 2. ed.
- Fahnestock, J. 1999. *Rhetorical figures in science*. New York: Oxford University Press.
- Garai, K. J. 2002. “Limurketa eta Esanguraren arteko Harremanak Euskal Atsotitzetan”. *Gogo*, II-2: 227-287.or.
- Gear, J.; Gear, R. 1996. *Cambridge Preparation for the TOEFL®*. Test. 2. ed. Cambridge: Cambridge University Press.
- Hutchins, E. 2000. “Material Anchors for Conceptual Blends”. Zirriborro argitaratugabea.
- Jamieson, K.M. Abendua 1975. “Antecedent Genre as Rhetorical Constraint”. *Quarterly Journal of Speech*. 61, 4, [406]-415.or.
- Kardaberaz, A. 1974. *Euskal Lan Guztiak (Obras Completas euskericas)*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. 164.or.
- Kay, P. 1983. “Linguistic Competence and Folk Theories of Language: Two English Hedges”. In P. Kay 1997. *Words and the Grammar of Context*. Stanford: CSLI lecture notes.
- . 1987. “Three Properties of the Ideal Reader”. In P. Kay 1997. *Words and the Grammar of Context*. Stanford: CSLI lecture notes.
- Lewis, M. 2001. *Planteamendu Lexikala: ELTren egoera eta etorkizunerako proposamena*. Itzult.: Ana I. Morales. Donostia: HABE. Jatorrizkoa: *The Lexical Approach: The State of ELT and a Way Forward*. 1993.
- Oakley, T.V. 1999, urtarrila. “The Human Rhetorical Potential”. *Written Communication*. 16, 1, 93-128. or.
- Perelman, C.; Olbrechts-Tyteca, L. 1971 1969. *The New Rhetoric: A Treatise on Argumentation*. Itzult: J. Wilkinson; P. Weaver. Notre Dame eta London: University of Notre Dame. Jatorrizkoa: *La Nouvelle Rhétorique: Traité de l'Argumentation*. PUF. 1958.
- Reddy, M. 1993 1979. “The conduit metaphor: A case of frame conflict in our language about language”. In A. Ortony. *Metaphor and Thought*. [164]-201.or.
- Ricoeur, P. 1996. “Introduction: The Symbolic Function of Myths”. In *Philosophy, Religious Studies, and Myth*. New York: Garland Pub. (Seriea: Theories of myth. 3). 327-340. or.
- Ruiz Bikandi, U. 2000 “La comprensión y la expresión orales”. In U. Ruiz Bikandi (arg.) *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria*. Madril: Síntesis Educación. 163-186.or.

- Thomas, F.N.; Turner, M. 1994. *Clear and Simple as the Truth*. Princeton (New Jersey): Princeton University Press.
- Toulmin, S. 1958. "The Layout of Arguments". In S. Toulmin. *The Uses of Argument*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Turner, M. 1998. "Figure". In C. Cacciari; Jr.Gibbs Ray; A. Katz; M. Turner. *Figurative Language and Thought*. New York: Oxford University Press, seriea: Counterpoints: Cognition, Memory, and Language. [Interneteko helbidea <http://www.wam.umd.edu/~mturn/WWW/figure.WWW/fcframe.html>. 1999-03-21an irakurria].
- . 1991. *Reading Minds: the Study of English in the Age of Cognitive Science*. Princeton (New Jersey): Princeton University Press.
- Vatz, R.E. 1973. "The Myth of the Rhetorical Situation". *Philosophy and Rhetoric*. 6, 154-168.or. Berrinprimatua: Lucaites, J.L.; Condit, C. M.; Sally C. (arg.). 1999. *Contemporary Rhetorical Theory: A Reader*. New York: Guilford Press.
- Weaver, R.M. 1985 1953. *The Ethics of Rhetoric*. Davis (CA): Hermagoras Press.
- Wright, E.A.; Halloran, S. M. 2001 1990. "From Rhetoric to Composition: The Teaching of Writing in America to 1900". In, J.J. Murphy (arg.). *A Short History of Writing Instruction: From Ancient Greece to Modern America*. 2. ed. New Jersey: LEA Hermagoras Press.

#### TOPICA KLASIKORAKO ERABILI DEN BIBLIOGRAFIA

- [CICERO] 1989 1954. *Ad Herennium: De Ratione Dicendi (Rhetorica Ad Herennium)*. With an English Translation by Harris Caplan. Seriea: *The Loeb Classical Library, CICERO in twenty Eight Volumes*. Cambridge Massachusetts & London: Harvard University.
- Boethius's De Topicis Differentiis*. 1978. Translated, with notes and essays on the text, by Eleonore Stump. Ithaca: Corenell University Press. [29]-155.or.
- Cicero. 1993 1949. *De Inventione. De Optimo Genere Oratorum. Topica*. With an English Translation by H. M. Hubbell. Cambridge (Massachusetts): Harvard University Press (Seriea: *The Loeb Classical Library* 386). 375-459. or.
- La Ramée, Pierre de. 1964 1955. *Dialectique: Edition critique avec introduction, notes et commentaires de Michel Dassonville*. Genève: Librairie Droz.: 61-113. or.